DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Zerbitzu Orokorren Batzordea
Comisión de Servicios Generales

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

12447n II

**20. AKTA**

**Zerbitzu Orokorren Batzordea**

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2025-03-17

**Ordua:** 12:00 h

**Tokia:** Loretope aretoa

**Batzordeburua:** Ana Lopez Loiarte

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Kerman Orbegozo Uribe

Martin Ibabe Eceiza

Juan Ramon Viles Mitxelena

Jabier Vitoria Roma

Markel Ormazabal Gaztañaga *(12:06an bilerara sartu da)*

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo Garcia Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Jorge Mota Iglesias

Arantza Gonzalez Garcia

**Beste zinegotzi batzuk**:

Olatz Yarza Garagorri(12:02an bilerara sartu da eta 12:37etan irten da)

**Idazkaria**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

**1.- 2025eko otsailaren 17an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

**ACTA Nº 20**

**Comisión de Servicios Generales**

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 17-03-2025

**Hora:** 12:00 h

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:** Ana López Loiarte

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

Kerman Orbegozo Uribe

Martín Ibabe Eceiza

Juan Ramón Viles Mitxelena

Jabier Vitoria Roma

Markel Ormazabal Gaztañaga *(se incorpora a la sesión a las 12:06 h)*

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo García Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Jorge Mota Iglesias

Arantza González García

**Otros concejales y concejalas**:

Olatz Yarza Garagorri *(a las 12:02 h se incorpora a la sesión y se retira a las 12:37 h)*

**Secretario**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación de la Secretaria General.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 17 de febrero de 2025.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 19. akta, 2025eko otsailaren 17an egindako bilerari dagokiona.

Se aprueba, por unanimidad, el acta número 19, correspondiente a la sesión celebrada el día 17 de febrero de 2025.

**2.- Interpelazioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, egonkortze prozesuei buruzkoa.**

**2.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los procesos de estabilización.**

*(12:02an Olatz Yarza andrea bertaratu da bilerara)*

*(A las 12:02 h la Sra. Yarza Garagorri se incorpora a la sesión)*

*(12:06an Markel Ormazabal jauna bertaratu da bilerara)*

*(A las 12:06 h el Sr. Ormazabal Gaztañaga se incorpora a la sesión)*

Jabi Vitoria jaunak interpelazio hau aurkeztu du:

El Sr. Vitoria Roma presenta la siguiente interpelación:

“Jabier Vitoria Romak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Osoko Bilkuraren Araudi Organikoaren 134. artikuluaren babesean, honako INTERPELAZIO hau aurkezten dio Kerman Orbegozo Uriberi, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko zinegotzi ordezkariari, Zerbitzu Orokorren Batzordean ahoz erantzun dezan, estabilizazio prozesuari buruz.

“Jabier Vitoria Roma, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, relativa al proceso de estabilización, a Kerman Orbegozo Uribe, concejal delegado de Gestión de Personas, Gestión Económica y Presupuestaria, para su respuesta oral en la Comisión de Servicios Generales.

JUSTIFIKAZIOA

Lan-egonkortasunean kota handiagoak lortzeko, eta interinoen tasa %8ra gutxitzeko egonkortzeeta konsolidazio-prozesua oraindik ez da bukatu. Udal Gobernuak hartutako konpromisoa zen prozesu hori abenduaren 31rako amaituta egotea, eta, horretarako, dagokion prozedura abiarazi zuen faseka.

2024ko azaroaren 13an Donostiako Udalak 6 hilabeteko luzapena eskatu zion Funtzio Publikorako Ministerioari amaitzeko dituen egonkortze prozesuak amaitzeko, legearen arabera abenduaren 31 baino lehen ebatzi behar ziren prozesu hauek. Jasotako erantzunean Madrilek ez zion Udalari eskatutako epea luzatzeko baimenik eman, ez eta prozesuak bertan behera ahalbidetu ere.

Zehazki, “azpimarratu egiten da garrantzitsua dela administrazio publikoek legeak prozesuak ebazteko aurreikusitako epeak betetzea” eta

JUSTIFICACIÓN

Para alcanzar mayores cotas en la estabilidad y reducir la tasa de interinidad al 8 %, se está llevado a cabo un proceso de estabilización y consolidación que aún no ha concluido. El compromiso adquirido por el Gobierno Municipal era que dicho proceso estuviera finalizado para el 31 de diciembre, para lo cual inició el correspondiente procedimiento por fases.

El 13 de noviembre de 2024 el Ayuntamiento de San Sebastián solicitó al Ministerio de Función Pública una prórroga de 6 meses para culminar los procesos de estabilización que tiene pendientes de finalizar y que, según la ley, debieron resolverse antes del 31 de diciembre. En la respuesta recibida, Madrid no autorizó al Ayuntamiento la ampliación del plazo solicitado ni permitió la suspensión de los procesos.

En concreto, «se insiste en la importancia de que las Administraciones Públicas cumplan con los plazos previstos por la ley para resolver los

"aurrekoa gorabehera, justifikatutako arrazoiengatik prozesuak ebazteko epea bete ezin den kasuetan, Administrazioak prozesu horiekin jarraitu ahal izango du, ahalik eta azkarren burutu arte".

procesos» y «no obstante lo anterior, en aquellos casos en los que por causas justificadas no sea posible cumplir el plazo de resolución de los procesos, la Administración podrá continuar con los mismos hasta su conclusión a la mayor brevedad posible».

Kontutan hartu behar da martxoan gaudela eta prozesua aurrera egiten duela.

Se debe tener en cuenta que estamos en marzo y el proceso avanza.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau aurkezten du:

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

-Zer dela eta egonkortze-prozesua ez zen aurreikusita zegoen bezala abenduaren 31n amaitu?

- ¿Por qué motivo el proceso de estabilización no finalizó el 31 de diciembre, tal y como estaba previsto?

-Zer dela eta kronogramaren datetan hartutako konpromisoak ez ziren bete?
Ekainerako espero al du Udal Gobernuak egonkortze-prozesu guztiak amaitzea? Zein da kronograma berria? Betetzen ari al da? Hala ez bada, zer dela eta ez da betetzen ari?

- ¿Por qué motivo no se cumplieron los compromisos adquiridos, concretados en las fechas del cronograma?
¿Prevé el Gobierno Municipal finalizar todos los procesos de estabilización para el mes de junio? ¿Cuál es el nuevo cronograma? ¿Se está cumpliendo? Si no es así, ¿por qué no se está cumpliendo?

Donostia, 2025eko martxoaren 07a

En San Sebastián, 7 de marzo de 2025

Jabier Vitoria Roma
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Jabier Vitoria Roma
Concejal del grupo municipal EH BILDU".

Kerman Orbegozo eta Jabier Vitoria jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen los Srs. Orbegozo Uribe y Vitoria Roma, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**3.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, mugikortasun-agenteek jasandako erasoei buruzkoa.**

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, en relación a las agresiones sufridas por Agentes de movilidad.**

Arantza Gonzalez andreak interpelazio hau aurkeztu du:

La Sra. Arantza González presenta la siguiente interpelación:

"Arantza González García Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Mugikortasuneko agenteek jasandako erasoei buruzko

"Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la

INTERPELAZIO hau aurkezten dio Mugikortasuneko eta Garraio Jasangarriko zinegotzi ordezkari Yarza andreari, Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Mugikortasuneko agenteek lau eraso jasan dituzte azken asteetan, azkena larunbatean. Horren inguruan, alkateak, Goia jaunak, honako hau adierazi du: "azken kasuan zein aurrekoan, Udala epaitegira joango da, akusazio gisa, udal-langile horien lana eta izen ona defendatzeko".

Mugikortasuneko agenteen aurkako erasoak ez dira berriak, baina areagotzen ari dira, eta alkateak ere adierazi duenez, "guztiz onartezina da lanean ari diren pertsonek horrelako jarrerak jasan behar izatea". Era berean, sare sozialen bidezko mezu jakin batzuk aipatzen zituen; izan ere, badirudi Mugikortasuneko agenteen aurkako jarrera horiek bultzatzen ari direla, eta Udalak hori ere salatu egin beharko luke.

Izan ere, CCOO sindikatuak jakinarazi du 2012az geroztik udal-gobernuari hainbat gai planteatu dizkiotela egoera horri aurre egiteko, besteak beste:

• Laneko arriskuak berrikustea.

• Gertakarien aurrean jarduteko protokolo bat egitea.

• Ekitaldi jendetsuetan eta arrisku handiko partidetan binaka lan egitea.

• Defentsa pertsonaleko espraia borondatez eramateko baimena ematea.

• Udal-langileen aurkako jazarpen sistematikoa sustatzen duten prentsako eta sare sozialetako argitalpenen aurka jardutea, Zigor Kodearen 169. artikuluan jasotako mehatxu-delitu baten adibide argia baitira.

concejala delegada de Movilidad y Transporte Sostenible, Sra. Yarza, para su tratamiento en la comisión de Servicios Generales, en relación con las agresiones sufridas por agentes de movilidad.

JUSTIFICACIÓN

Los y las agentes de movilidad han sufrido cuatro agresiones en las últimas semanas, la última el pasado sábado. A este respecto, el Alcalde, Sr. Goia, ha manifestado que “tanto en el último caso como en lo anteriores, el Ayuntamiento va a personarse como acusación en el juzgado, en defensa del trabajo y el buen nombre de estos trabajadores y trabajadoras municipales”.

Las agresiones a los y las agentes de movilidad no son nuevas, si bien están aumentando, y como también ha manifestado el Sr. Alcalde, “es totalmente inaceptable que personas que están realizando su trabajo tengan que sufrir este tipo de actitudes”. Así mismo, hacía referencia a determinados mensajes por redes sociales que parece que estarían alentando a ese tipo de actitudes contra los y las agentes de movilidad, lo que debería ser también denunciado por el Ayuntamiento.

De hecho, el sindicato CCOO ha informado de que desde 2012 llevan planteando al gobierno municipal una serie de cuestiones para hacer frente a esta situación, entre las que están:

• Revisión de riesgos laborales

• Elaboración de un protocolo de actuación en caso de incidentes

• Trabajar en binomios en casos de eventos multitudinarios y partidos de alto riesgo

• Autorización para portar spray de defensa personal de manera voluntaria

• Actuar contra las publicaciones en prensa y redes sociales que alientan el acoso sistemático contra las personas trabajadoras municipales, ya que constituyen un claro ejemplo de un delito de amenazas contenido en el artículo 169 del código

penal.

Gure ustez, alkateak iragarritako neurria, hots, epaitegian akusazio gisa bertaratzea, langileekiko betebeharra da honelako kasuetan, baina udal-gobernuak esku hartu behar du gertatutakoa bezalako gertaerak berriz gerta ez daitezen, CCOO sindikatuak proposatu dituen prebentzio-neurriak hartuta.

Consideramos que la medida anunciado por el Alcalde de personarse como acusación en el juzgado es una obligación para con sus trabajadores y trabajadoras en casos como este, pero el gobierno municipal debe actuar para evitar que hechos como los sucedidos vuelvan a producirse tomando medidas preventivas como las que el sindicato CCOO ha propuesto.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo ello, realizamos la siguiente:

INTERPELAZIOA

INTERPELACIÓN

1. Udal-gobernuak zergatik ez du prebentzio-neurririk hartzen Mugikortasuneko agenteen aurkako erasoak saihesteko?

1. ¿Por qué razón el gobierno municipal no toma medidas preventivas para evitar agresiones a los y las agentes de movilidad?

2. Udal-gobernuak baloratu al ditu CCOO sindikatuak 2012an egindako proposamenak, edo beste edozein, Mugikortasuneko agenteek erasorik jasan ez dezaten? Erantzuna baiezkoa bada, zer neurri dira eta nola ezarri edo ezarriko ditu?

2. ¿Ha valorado las propuestas realizadas por el sindicato CCOO en 2012 o cualquier otra para impedir que se produzcan agresiones a los y las agentes de movilidad? En caso afirmativo, ¿cuáles y cómo las ha implementado o va a implementar?

3. Udal-langileen aurkako jazarpen sistematikoa sustatzen duten prentsako eta sare sozialetako argitalpenen aurka jardungo al du, Zigor Kodearen 169. artikuluan jasotako mehatxu-delitu baten adibide argia direla kontuan hartuta?

3. ¿Va a actuar contra las publicaciones en prensa y redes sociales que alientan el acoso sistemático contra las personas trabajadoras municipales, ya que constituyen un claro ejemplo de un delito de amenazas contenido en el artículo 169 del código penal?

Donostia, 2025eko martxoaren 7a

Donostia, a 7 de marzo de 2025

Arantza González García
Elkarrekin Donostia talde mistoko zinegotzia”.

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”.

Olatz Yarza eta Arantza González andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:37an Olatz Yarza andrea irten da)*

*(A las 12:37 h se retira la Sra. Yarza Garagorri)*

**4.- Galdera, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, ustezko sexu-jazarpen kasuari buruz.**

**4.- Pregunta, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, en relación con el presunto caso de acoso sexual.**

Arantza Gonzalez andreak galdera hau aurkeztu

La Sra. González García presenta la siguiente

du:

“Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 135. artikuluaren babesean, ustezko sexu-jazarpenari buruzko GALDERA hauek egiten dizkio Segurtasun, Suhiltzaile eta Babes Zibileko zinegotzi ordezkari Martin Ibaberi, Zerbitzu Orokorren Batzordean ahoz erantzuteko.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den hilabeteko Zerbitzu Orokorren Batzordean, Ibabe jaunari interpelazio bat aurkeztu genion Udaltzaingoan ustezko sexu-jazarpen kasu bati buruzko salaketa anonimoaren inguruan. Batzordean, zinegotzi ordezkariak jakinarazi zuen salaketaren berri izan ondoren, urtarrilaren 23an, Udaltzaingoaren komisarioari jarraibideak eman zizkiola horri buruzko ikerketa bat abian jartzeko.

Era berean, batzorde horretan, Pertsonak Kudeatzeko zinegotzi ordezkari Orbegozo jaunak, jakinarazi zuen Udalaren salaketa-kanala aldatu egin zela salaketa-kanal bakar bat izateko, eta, beraz, sexu-jazarpenagatiko salaketak ere bide horretatik izapidetu ahal izango zirela.

Ia bi hilabete igaro dira ikerketa hasi zenetik, eta gaur egun ez dakigu irekitako ikerketa amaitu den edo salaketa-kanalaren bidez beste salaketa batzuk jaso diren, hain zuzen ere Udaltzaingoan ustez gertatutako sexu-jazarpenari buruz sare sozialetan agertutako salaketa anonimoarekin bat datozenak.

Hori dela eta, hauek dira gure:

GALDERAK

1. Udaltzaingoko komisarioak amaitu al du dagoeneko Udaltzaingoan ustez gertatutako sexu-jazarpenari buruzko ikerketa?

2. Erantzuna baiezkoa bada, zein izan da ikerketaren ondorioa eta zer neurri hartu ditu udal-

pregunta:

“Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta las siguientes PREGUNTAS para respuesta oral al concejal delegado de Seguridad, Bomberos y Protección Civil, Sr. Ibabe, en la comisión de Servicios Generales, en relación con el presunto caso de acoso sexual en la Guardia Municipal.

JUSTIFICACIÓN

En la comisión Servicios Generales del mes pasado, interpelamos al Sr. Ibabe sobre la denuncia anónima de un presunto caso de acoso sexual en la Guardia Municipal. En la comisión, el concejal delegado informó de que tras tener conocimiento de la denuncia, con fecha 23 de enero, dio instrucciones al Comisario de la Guardia Municipal para abrir una investigación al respecto.

Igualmente, en la citada comisión el concejal delegado de personas, Sr. Orbegozo, informó de que el canal de denuncias del Ayuntamiento se había modificado para ser el canal único de denuncias, de manera que también las denuncias por acoso sexual se puedan tramitar por esa vía.

Han pasado casi dos meses desde que se inició la investigación y a día de hoy no sabemos si ha concluido la investigación abierta o si el canal de denuncias ha recibido otras denuncias coincidentes con la denuncia anónima en redes sociales sobre el presunto caso de acoso sexual en la Guardia Municipal.

Por todo ello, realizamos las siguientes:

PREGUNTAS

1. ¿Ha finalizado ya la investigación por parte del Comisario de la Guardia Municipal del presunto caso de acoso sexual en el departamento?

2. En caso afirmativo ¿cuál ha sido la conclusión de la investigación y qué medidas ha

gobernuak ikerketaren ondoren?

tomado el gobierno municipal con posterioridad a la misma?

3. Salaketarik jaso al da Udalaren salaketen barne-kanalaren bidez, sare sozialetan salatutakoarekin bat datorrena? Erantzuna baiezkoa bada, zenbat? Zer pauso ematen ari dira salaketa horiek ikusita?

3. ¿Ha habido alguna denuncia a través del canal interno de denuncias del Ayuntamiento coincidente con la denunciada en redes sociales? En caso afirmativo ¿cuántas? ¿qué pasos se están dando a la vista de esas denuncias?

4. Udal-gobernua hasi al da Udalaren "Sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentziorako eta jardute protokoloa" aldatzen?

4. ¿Ha iniciado ya el gobierno municipal la modificación del “Protocolo de prevención y actuación del acoso sexual y por razón de sexo” del Ayuntamiento?

Donostia, 2025eko martxoaren 7a

Donostia, a 7 de marzo de 2025

Arantza González García
Elkarrekin Donostia talde mistoko zinegotzia”.

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”.

Martin Ibabe jaunak eta Arantza Gonzalez andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. Ibabe Eceiza y la Sra. González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**5.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**5.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**5.1.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Udaltzaingoaren kontratazioari buruzkoa.**

**5.1.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la contratación de la Guardia Municipal.**

Jabier Vitoria jaunak interpelazio hau aurkeztu du:

El Sr. Vitoria Roma presenta la siguiente interpelación:

“Jabier Vitoria Roma EH Bilduko udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, udaltzainen kontratazioari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Martin Ibabe Segurtasuneko zinegotzi ordezkariari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean azalpenak eman ditzan.

“Jabier Vitoria Roma, concejal del grupo municipal de EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico de la Corporación, presenta la siguiente interpelación al concejal delegado de Seguridad, Martin Ibabe, en relación a la contratación de la Guardia Municipal, para que dé explicaciones en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

Azken aste eta hilabete hauetan, udaltzainak kontratatzeko formularik egokienari buruzko eztabaida izan dugu EAEko hainbat herri eta hiritan.

JUSTIFICACIÓN

Estas ·ltimas semanas y meses asistimos un debate sobre la fórmula más adecuada para la contratación de guardias municipales en diferentes pueblos y ciudades de la CAV.

Begi-bistakoa da, aukeratzen den polizia-eredua edozein dela ere, funtsezkoa dela agente horiek lan egiten duten herria edo hiria ezagutzea, bai eta, oro har, bertako errealitate geografikoa, soziala, linguistikoa eta kulturala ezagutzea ere.

Es una obviedad que, independientemente del modelo policial por el que se opte, es fundamental que estos agentes conozcan el pueblo o ciudad en la que trabajan, así como de manera general su realidad geográfica, social, lingüística y cultural.

Udaltzaingoko langileen ordezkariek behin baino gehiagotan agerian jarri dituzte alderdi horien inguruko gabeziak, langileak hautatzeko eredua aldatu delako, eta hautaketa hori Arkautek egiten duelako erabat.

Representantes de los y las trabajadoras de la guardia municipal han cuestionado en diferentes ocasiones carencias en este sentido a raíz del cambio en el modelo de selección del personal realizado enteramente desde Arkaute.

Herritarrei kalitatezko eta hurbileko zerbitzu bat eskaini nahi badiegu, funtsezkoa da egoera horiek saihestea, eta uste dugu udaltzain horiek kontratatzeko prozedura birplanteatzea izan daitekeela gakoa, bai behin-behineko lan kontratupekoen kasuan, bai enplegu-eskaintza publiko bidezkoen kasuan.

Es fundamental, si queremos ofrecer un servicio de calidad y cercano a la ciudadanía, que se eviten estas situaciones, y pensamos que la clave puede estar en replantearse el procedimiento por el que se contratan estos y estas guardias, sea eventualmente o mediante OPE.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako INTERPELAZIOA:

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- Zergatik egon daitezke horrelako gabeziak kontratatutako langileen artean?

- ¿Cuales son los motivos por los que se puedan dar este tipo de carencias en parte del personal contratado?

- Udal gobernuak zergatik ez du kontratazio horiek EAEko herri eta hiri batzuetan planteatzen diren antzeko formulen bidez egiteko aukeran pentsatzen?

- ¿Por qué el gobierno no piensa en realizar estas contrataciones mediante fórmulas similares a las que se plantean en algunos pueblos y ciudades de la CAV, basados en hacer una selección a nivel local?

- Gure hiriaren irudi ona eta donostiarrei zerbitzu ona ematen laguntzen ez duten egoera horiek saihesteko beste formularen bat erabiltzea pentsatzen ari al da udal gobernua?

- ¿Está el gobierno pensando en alguna otra fórmula para evitar estas situaciones que no ayudan a dar una buena imagen de nuestra ciudad ni un buen servicio a las y los donostiarras?

Donostia, 2025eko martxoaren 7a

Donostia, 7 marzo de 2025

Sin.: Jabier Vitoria Roma
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Sin.: Jabier Vitoria Roma,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Martin Ibabe eta Jabi Vitoria jaunek, hitz egin dute puntu hauetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto los Sres. Ibabe Eceiza y Vitoria Roma, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, Batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko eguerdiko ordu batak eta bian bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

Y no habiendo más asuntos, la Presidenta declara terminada la sesión a las trece horas y dos minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.

O.E./Vº Bº
BATZORDEBURUA / LA PRESIDENTA

Ana Lopez Loiarte